

1999ko Liburuaren Eguna Leitzan

José Luis HUARTE

Aurten ere Liburuaren Eguna prestatzeko lehenengo bilerak hiru hilabete lehenago egin genituen Kultur Taldekoekin, elkarren artean ikusteko ze aukerak zeuden eta nola antolatu genitzakeen. Azkenean hiru ekintza aukeratu genituen egiteko: bertako Irratian saio berezi bat, liburu egile-idazle batekin saioa Liburutegian eta Liburutegia Kalean deritzon ekintza. Ikus ditzagun banan-bana.

Irratsaioa

Leitzako Institutoan Literatur Tailer bat egin izana aitzkitzat hartuz, tailer hortan aritutako lau gazteekin hitzegiteko parada izan genuen irratian zuzenean. Tailer hortan izandako esperientziak, ateratako ondorioak etab. aritu ondoren gai orokorragoetara pasa ginen, literatura zer den beraietzat, zer irakurtzen duten, zergaitik, irakasleak behartzearena nola ikusten duten, zergatik irakurtzen duten edo ez duten irakurtzen gazteak (14-16 urteko tarte-koak ziren), zer zentzu hartzen dioten horrelako osapakizun batēri, etab. luze bate-taz aritu ginen ia ordu batez. Denetarik entzun genuen, askotan harritzeko moduko-ak ere bai eta saioa interesgarria izan zeneko ustearekin gelditu ginen. Gutxienez gu, pozik.

31

Idazleekin solasaldia

Kasu honetan bi egile ziren aukeratu genituenak: Amaia Elozegi eta Esther Mugertza, eta liburu bakarra: Txirringaren aienean.

Hasieratik hitzaldia baino elkarrizketa tankera hartu zuen jardunak eta jendearen kezkek eta galderak zuzendu zuten beraien agerpena. Liburuaren edukiari buruzkoak (zergaitik bidaia, nola, gertaera batzuei buruzko azalpenak, etab.) diapositiba batzuekin hornitu zituzten eta interesa piztu zuten. Bestalde "idazle" ez diren batzuek nondik nora hasi ziren liburu bat idazten, izan zituzten zailtasunak, eta horrelako gaietan ere dexente sartu ginen.

Liburutegia kalean

Azken urte hauetan Liburutegi mordoxkak egiten duen ekintza da eta hemen ere pare bat aldiz saiatu arren kale egin genuen. Aurten apirilaren 23-a ostirala zenez, eta Leitzan azoka izaten dela aprobetxatuz, azokan puesto bat jartzea pentsatu genuen. Horretarako aurretik Udalaria zaimena eskatu, tokia aukeratu eta aurreko ostiralean ondoko puestokoei hitzegin genien inor ez haserretzeko. Bezperan bi mahai handi eta espositore bat jarri genituen gure tokian eta

aukeratutako 200 bat liburu eta 25 bat aldizkari kajatan sartu eta Udaletxera eraman genituen biharamonerako prest utziz.

Goizeko 9etarako jarri genituen liburuak eta hasieratik izan genuen jendea. Galdera bitxi (zer saltzen genuen edo zeren propaganda egiten), jende harrিতua (etzuten uste “horrelak gauzak bazeudenik Liburutegian edo eskolako lanetarako bakarrik zegoelakoan zeuden.. denetarik. Baina jende asko eta interes handiarekin. Gehienak etxeoandreak, jubilatua etab. Denei propaganda banatzen genien eta behin eta berriro errepikatu Liburutegiaren aukerak, dohain zela, denetarik aurkitu zitekela, mailegu zerbitzua erabiltzeko betebeharreko baldintza eta epeak eta eman behar zituzten datoak, etab. Bertan egiten genituen sozio berriak eta liburuak maileguan eramaten utzi ondoren, Liburutegira itzuli behar zituzten, ezagu zezaten eta falta zituzten baldintzak bete zituzten.

Horrela ia 50 liburu eraman zituzten maileguan, Gehienak irakurle berriak ziren guretzat eta liburuak itzuli ondoren segitzen dute Liburutegia erabiltzen. Batek baino gehiago esaten zuten ea zergaitik ez genuen hau egiten ostiralero.

Lan handia ematen duen ekintza da baina oso esker onekoa, jende askorekin eta Liburutegietako ohiko ez direnekin egoten baitzara solasean eta gehienentzat aurkikuntza lortzen da. Gainera Kultur Taldeko hiru lagun izan nituen lankide goiz guzian, baita liburuen joan eta etortzean ere.

32

Ekintza guzti hauek prestatzerakoan eta baita egiterakoan ere Leitzako Kultur Taldearen laguntza izan dut eta hori oso garrantzitsua da bai zenbait gauza bakarrik egitea oso zaila delako eta baita bertako kultur eragileekin harreman zuzenean aurrera eramatea ere.

Ondorioak

Aurrenekoa, horrelako ekintzak egitea arrunta beharko lukeela izan urtean zehar, egun batean zati baten zai egon gabe.

Irratikoaz gainera (hilean bi saiotxo egiten ditugu) beste ekitaldiak ere jendearen onarpena erakutsi dute. Orduan? Ba presuposturik ez daukagu “animación” deritzon horretarako eta jakina, ia nondik ateratzen dituzun 30 mila pezeta idazle bat ekarri eta gainera 20-30 lagun ezin bilduz ibiltzeko. Eta Liburutegien Saretik ez da ezer antolatzen. Bakoitzak bakarrik egin behar du egin beharreko guziaz. Ez dugu ez dirurik ez laguntzarik horrelakoetarako ahal duenak ahal duena egiten du.

Horrelako egunak erakusten dute egiten duguna baino gehiago egin beharko genuke Liburutegia jendearengana hurbiltzeko eta horretarako baliabideak eta laguntza eman behar direla. Bitartean, ahal duguna eginez, pozik, baino zerbait gehiagoren irrikitan.

Leitzan, 1999ko urr